

2016PORD0002

## **IRUNGO UDAL BARATZE EKOLOGIKOAK ESLEITZEKO ETA KUDEATZEKO ARAUDIA (IRUNGO BARATZE PARKEA)**

Aisialdiko baratzezaintza gero eta indar handiagoa hartzen ari da herritar askoren zeregin ludiko gisa, eta horrexegatik, proposatzen dugu Irungo biztanleriaren zati batek familiaren kontsumorako elikagaiak lortzeko erabiltzen dituen baratze txikiak sustatzea.

Helburua da aisialdirako baratze ekologikoen programa bat sortzea **jabari publikoko lurretan**, ingurumenaren gaineko prestakuntza eta kontzientziarioa handitzeko, lurzoruen eta uraren erabilerak planifikatzeko eta kudeatzeko, eta bertako espezieak babesteko tresna gisa, hezkuntzaren esparruan baratzezaintza ekologikoa erabiliko duena, horretarako jardunbide egoki eta iraunkorrak burutzeko baratzeak, aisialdirako baratzeak, sortuz.

Erabiltzaileek aisialdirako baratze horiek erabili eta aprobetxatu ahal izateko, oro har, erabilera pribatiboa eman behar zaio jabari publikoko ondasun bati, eta horrenbestez, indarrean dagoen legeriak aurreikusitakoaren arabera, erabilera hori behar bezala arautu behar da, eta baimena lortu behar da betiere, planteatzen den aprobetxamenduaren iraupena gehienez ere lau urtekoa izatea proposatzen baita.

Toki Korporazioen Zerbitzuen Araudiaren 7. artikulua xedaturikoaren arabera, Toki Korporazioek arautzeko erabakitako xedapenek, oro har, Ordenantza edo Araudi

## **REGLAMENTO REGULADOR DE LA ADJUDICACIÓN Y GESTIÓN DE LAS HUERTAS ECOLÓGICAS MUNICIPALES DE IRUN (IRUNGO BARATZE PARKEA)**

La horticultura de ocio constituye una pujante forma de ocupación lúdica de muchos habitantes urbanos, por lo que se propone el fomento de los pequeños huertos que son empleados por una parte de la población de Irun para obtener alimentos destinados al consumo familiar.

Se pretende conformar un programa de huertas ecológicas de ocio **sobre terrenos de dominio público** como un medio para la formación y concienciación medioambiental, de planificación y gestión de los usos del suelo y del agua y de conservación de especies autóctonas, que utiliza una horticultura ecológica en el ámbito educativo mediante la creación de unos huertos de buenas prácticas sostenibles, huertos de ocio.

El uso y aprovechamiento que las personas usuarias puedan hacer de estos huertos ecológicos de ocio, en general, implica un uso privativo de un bien de dominio público por lo que, de conformidad con lo previsto en la normativa vigente, debe someterse el mismo a la pertinente regulación, quedando sujeto a autorización, al proponerse la duración del aprovechamiento que se plantea como máximo de cuatro años.

De conformidad con lo dispuesto en el artículo 7 del Reglamento de Servicios de las Corporaciones locales las disposiciones acordadas por las Corporaciones Locales

forma izango dute.

Araudi honen helburua da Irungo Baratze Parkea programa osatuko duten lursailen erabilera eta aprobetxamendua arautzeko behar diren baldintzak ezartzeko erregimen juridikoa finkatzea, eta baratze horiek esleitzeko prozedura, erabilera baldintza orokorrak, baratzetako laborantza jarduera eta erabiltzaileen erantzukizunak, betebeharrak eta eskubideak arautzea.

para regir con carácter general revestirán la forma de Ordenanza o Reglamento.

El objeto del presente Reglamento es determinar el régimen jurídico en orden a establecer, con carácter general, las condiciones que han de regir el uso y aprovechamiento de las parcelas que conformarán el programa Baratze Parkea de Irun así como regular el procedimiento para su adjudicación, condiciones generales de uso, la actividad agrícola de las huertas y las responsabilidades, deberes y derechos de las personas usuarias.

## I. TITULUA PRINTZIPIO OROKORRAK

### *1. Artikulua. Araudiaren xedea.*

Araudi honen helburua da Irungo Baratze Parkeko aisialdirako baratze ekologikoak erabiltzeko, gozatzeko eta aprobetxatzeko bete behar diren baldintzak arautzeko erregimen juridikoa finkatzea, eta baratze horiek esleitzeko prozedura, baratzetako laborantza jarduera eta erabiltzaileen erantzukizuna arautzea.

### *2. Artikulua. Aplikazio esparrua.*

Araudiaren aplikazio esparru objektiboak aisialdirako baratze publikoen programaren barnean (Irungo Baratze Parkea) dauden udalaren jabetzeko lursail guztiak hartzen ditu.

Eremu subjektiboari dagokionez, araudi honetan jasotako arauak aplikatuko zaizkie Irungo udalerrri honetako izatezko eta zuzenbidezko egoiliar guztiei, baldin eta aisialdirako baratzeak erabiltzeko, gozatzeko eta aprobetxatzeko aukera badute eta Araudi honetan baratzeak

## TÍTULO I PRINCIPIOS GENERALES

### *Artículo 1. Objeto del Reglamento.*

El presente Reglamento tiene por objeto determinar el régimen jurídico en orden a la regulación de las condiciones necesarias para el uso, disfrute y aprovechamiento de las huertas ecológicas de ocio de Irungo Baratze Parkea, así como establecer el procedimiento para la adjudicación de las mismas, la regulación de la actividad de cultivo de los huertos y la responsabilidad de las personas usuarias.

### *Artículo 2. Ámbito de aplicación.*

El ámbito objetivo de aplicación del Reglamento abarca todos aquellos terrenos de propiedad municipal incluidos dentro del programa de huertas de ocio públicas (Irungo Baratze Parkea).

En cuanto al ámbito subjetivo, la reglamentación contenida en esta norma, será de aplicación a todas aquellas personas residentes de derecho y de hecho en este municipio de Irun que puedan optar al uso, disfrute y aprovechamiento de los huertos de ocio que cumplan los requisitos previstos

esleitzeko aurreikusitako baldintza guztiak betetzen badituzte.

en este Reglamento para su adjudicación.

### 3. Artikulua. Definizioak.

- a) Erabiltzailea: Lagatzen den ondasuna, baratze publikoa, erabiltzeko edo aprobetxatzeko eskubidea jasotzen duen pertsona fisikoa. Hemen garrantzia duten ondorioetarako, aisialdirako baratze ekologikoaren lagapenaren onuraduna.
- b) Fruituak: Baratzearen erabileratik lortzen diren etekinak, hau da, ereitetik eta lurra lantzearen ondorioz lortutako produktuak, esate baterako, barazkiak, frutak, lekariak eta abar.
- c) Elementu komunak. Baratzeak dauden udalaren lursailean berez edo propio jarrita dauden elementuak, zenbait jabetza edo guztiei balio dietenak, esate baterako, bideak, hodiak, uraskak, konposta egiteko ontziak eta abar. Era berean, elementu komuntzat joko dira erabiltzaileen esku jartzen diren laborantzako lanabesak eta gainerako tresnak.
- d) Erantzukizuna: Baratzeen erabiltzaile bakoitzak bere gain duen erantzukizuna da, nork berea eta erabiltzen duen lursail zatiaren arabera.
- e) Baratze ekologiko publikoa: Bakoitzak duen lursail zatia; zati horren gainean eratzten da erabili, gozatu eta aprobetxatzeko erabiltzaile bakoitzak duen eskubidea.
- f) Lursaila: Baratze publiko guztiek eta dituzten elementu komunek osaturiko udal lurra, hartan daude aisialdirako baratzeak.
- g) Bizikidetzaren unitatea. Etxebizitza berean izatez eta zuzenbidez elkarrekin bizi diren pertsonak, hauxe

### Artículo 3. Definiciones.

- a) Persona usuaria: Persona física a favor de la cual, se constituye el derecho a usar y aprovechar el bien, la huerta pública que se cede. A los efectos que aquí interesan, la persona beneficiaria de la cesión sobre el huerto ecológico de ocio.
- b) Frutos: Rendimientos que se derivan del uso del huerto, esto es, los elementos que derivan de la siembra y tratamiento de la tierra, tales como verduras, frutas, hortalizas, etc.
- c) Elementos comunes. Son los elementos naturales o dispuestos en la parcela municipal donde se encuentran los huertos y que sirven a más de uno de los propietarios o propietarias o a la totalidad en común, como son los caminos, las tuberías, las albercas, las composteras, etc. Igualmente tienen consideración de elemento común los aperos de labranza y herramientas que se ponen a disposición de las personas usuarias.
- d) Responsabilidad: Se trata de la responsabilidad que recae sobre cada persona usuaria de los huertos, de forma individualizada y en relación con la porción de terreno de la que sea usuario o usuaria.
- e) Huerta ecológica pública: Porción de terreno individualizada, sobre la cual se constituye el derecho de la persona usuaria para el uso, disfrute y aprovechamiento.
- f) Parcela: Terreno municipal conformado por el conjunto de huertas públicas y sus elementos comunes, donde están enclavadas las huertas de ocio.
- g) Unidad convivencial: Personas que conviven de hecho y de derecho en una

da, bi ezkontideak edo izatezko bikotekideak (edo horietako bat, alargundua, banandua edo dibortziatua egonez gero) eta adingabeko seme-alabak, etxebizitza berean bizi badira.

- h) Interes taldeak: Beren ezaugarri bereziak direla-eta beste batzuen aldean gizarte egoera ahulekotzat hartzen diren kolektiboak, esate baterako, erretiratuak, langabetuak, gaitasun urrikoak edo interes berezikotzat hartzen direnak, esate baterako, irabazi asmorik gabeko elkarteak, eskolak eta abar.

#### **4. Artikulua. Baimen epea.**

Denbora jakin baterako emango dira baimenak. Gehieneko epea, luzapenak barne, lau urtekoa izango da.

Luzapenak hitzartuta daudela ulertuko da baldin eta aldeetako baten aurreabisurik ez bada jasotzen baimena edo dagozkion luzapenak amaitu baino hilabete bat lehenago.

Esleipendunak, lizentzia epearen azken hilabetean, baratzea garbi eta hurrengo esleipendunak lantzeko moduan utzi beharko du.

#### **5. Artikulua. Erabilera printzipio orokorrak.**

1. Zaintzeko eta mantentzeko printzipioa: Irungo Baratze Parkearen erabiltzailearen betekizun nagusia izango da utzi zaion lursaila egoki zaindu eta mantentzea, eta hura erabiltzerakoan behar bezalako arreta edukitzea, baratzeak osasuntsu, apain eta landuta mantendurik.
2. Errespetu printzipioa instalazioak erabiltzerakoan: baratze ekologiko bat

misma vivienda, teniendo la consideración de tales las y los dos cónyuges o parejas de hecho (o uno de ellos o ellas en caso de viudedad, separación o divorcio) e hijos o hijas menores de edad que convivan en el mismo domicilio.

- h) Grupos de interés: Colectivos que por sus especiales características se consideran desfavorecidas respecto de otros, tales como personas jubiladas, paradas, discapacitadas, o bien se consideran de especial interés tales como asociaciones sin ánimo de lucro, escuelas, etc.

#### **Artículo 4. Plazo de autorización.**

Las autorizaciones se otorgarán por tiempo determinado. Su plazo máximo de duración, incluidas las prórrogas, será de cuatro años.

Las prórrogas se entenderán acordadas si no mediara un preaviso de cualquiera de las partes con un mes de antelación a la finalización de la autorización o de sus sucesivas prórrogas.

La persona adjudicataria deberá dejar, en el mes final del plazo de autorización, el huerto limpio y apto para ser cultivado por la siguiente persona adjudicataria.

#### **Artículo 5. Principios generales de uso.**

1. Principio de conservación y mantenimiento: Será obligación principal de la persona usuaria de Irungo Baratze Parkea, la adecuada conservación y mantenimiento del terreno que se le ceden, debiendo aplicar la debida diligencia en su uso, manteniendo la salubridad, el ornato y el cultivo de las mismas.
2. Principio de respeto en el uso de las instalaciones: Toda persona que sea

uzten zaion pertsona orok ahalegina egin beharko du gainerakoei eragozpen, kalte edo galerarik ez eragiteko.

3. Salerosketarik ez egiteko printzipioa. Baratzeen lagapen hartzaile guztiek debekatuta izango dute baratzeetako produktuak merkataritza xederako edo ustiapen ekonomikorako erabiltzea.
4. Autohornikuntza printzipioa: Baratzeak lantzetik sortzen diren produktuak erabiltzaileak edo haren familia unitateak bakarrik kontsumitu ahal izango ditu, etekin ekonomikorik jasotzeko aukerarik izan gabe.
5. Ingurumen prebentziorako printzipioa: Baratzeen erabileraren onuradunak diren pertsonak ez dute erabiliko lurrari kalte larriak eragin diezazkiokeen ongarririk edo produktu fitosanitariorik, horiek lurra bera edo egon litezkeen akuiferoak kutsatzen baitituzte, eta beraz, araudi honetan lurraren laborantza ekologikoari buruz azaldutako baldintza zehatzei jarraitu behar zaie.

#### **6. Artikulua. Erregimen aplikagarria eta erregulazioa.**

1. Erabiltzaileek egin dezaketen Aisialdirako Baratze horien erabilera eta aprobetxamendua jabari publikoko ondasun baten erabilera pribatibo gisa kalifikatu behar da, eta horrenbestez, indarrean dagoen legeriak aurreikusitakoaren arabera, baimena lortu beharko da, planteatzen den aprobetxamenduaren iraupena gehienez ere lau urtekoa izango baita.
2. Baratze publikoen kopurua mugatua denez, baratze ekologikoen ustiapenerako erabilera baimena eskatzaile guztien arteko lizitazio

usuaria de un huerto ecológico, deberá evitar causar molestias, daños o perjuicios a las demás personas.

3. Principio de no comerciabilidad: Las personas adjudicatarias de los huertos tendrán prohibido dedicar el cultivo de los mismos para fines comerciales o de explotación económica.
4. Principio de autoabastecimiento: Los frutos de la tierra, que se originen por la siembra de los huertos, únicamente podrán ser objeto de consumo propio o de la unidad familiar, sin que puedan destinarse a percibir rendimientos económicos.
5. Principio de prevención ambiental: Las personas beneficiarias del uso de los huertos se cuidarán de no utilizar productos fertilizantes ni productos fitosanitarios que puedan provocar un grave perjuicio sobre la tierra, contaminando la misma y los acuíferos que puedan existir, en los estrictos términos expuestos en este reglamento sobre el cultivo mediante sistemas de agricultura ecológica.

#### **Artículo 6. Régimen aplicable y regulación.**

1. El uso y aprovechamiento que las personas usuarias pueden hacer de estos Huertos de Ocio públicos debe calificarse de uso privativo de un bien de dominio público por lo que, de conformidad con lo previsto en la normativa vigente, deberá someterse a autorización, al ser la duración del aprovechamiento hasta un máximo de cuatro años.
2. Dado que el número de huertas públicas es limitado, la autorización de uso para la explotación de las mismas deberá adjudicarse en régimen de concurrencia

bidez esleitu beharko da konkurrentzia erregimenean.

3. Esleitu beharreko baratzeak baino onartutako eskaera gehiago balego, zozketa bidez egingo da esleipena. Hala ere, Irungo Udalak, interes taldeentzako gorde ahal izango ditu baratze lursail batzuk.

entre todas las personas solicitantes.

3. Si hubieren más solicitudes admitidas que huertas a adjudicar, la adjudicación se realizará mediante sorteo. No obstante, el Ayuntamiento de Irun podrá reservar algunas parcelas de huertas para grupos de interés.

### **7. Artikulua. Baimenaren titulua.**

Lizentziak zerbitzua eskuratzeko eskubidea ematen du, eta horrenbestez, ematen duen baratzearen erabilerarako eskubidea pertsonala eta transferiezina da, eta haren lagapenerako ezarritako baldintzak betetzen diren bitartean bakarrik balio izango du.

Erabiltzaileak ezin izango ditu, inola ere, laga, zergapetu edo doan edo kostubidez eman lizentziak emandako baimenaren erabilerarekin loturiko eskubideak. Eskubide horiek ezin izango zaizkio, inola ere, beste inori eman.

Emandako baimenaren titulua «prekarioan» izango da erabiltzailearentzat, eta Udalak, interes publikoko arrazoi justifikatuak badaude, edozein unetan kendu ahal izango dio baimena edozein erabiltzaileri, Udalaren aldetik inolako kalte-ordainik jasotzeko eskubiderik sortu gabe.

Interes publikoko arrazoi justifikatuak izan daitezke, «aisialdirako baratze ekologikoak» programa ordezkatzan duen edo harekin bateraezina den beste edozein udal programa onartzea, edo Udalak edo beste edozein Herri Administrazioak hiri edo azpiegituren garapenerako edozein plan onartzea, baldin eta plan horrek berekin badakar aisialdirako baratze ekologikoen kokaleku berean edozein zuzkidura publiko ezarri beharra. Kasu horietan, aipatutako planaren

### **Artículo 7. Título de la autorización.**

La autorización confiere un derecho de acceso al servicio y, en consecuencia, un derecho de uso y aprovechamiento del huerto que es personal e intransferible, y sólo producirá efectos mientras concurren las condiciones establecidas para su otorgamiento.

La persona usuaria no podrá, en ningún caso, ceder, gravar o disponer a título oneroso o gratuito de los derechos que se deriven de la utilización del uso autorizado. Dichos derechos no podrán ser, en ningún caso, objeto de transmisión a terceras personas.

La autorización concedida lo será a «prekario» para la persona usuaria, pudiendo el Ayuntamiento por causas justificadas de interés público revocar la autorización concedida, en cualquier momento, sin derecho a indemnización alguna por parte del Ayuntamiento.

Pueden ser causas justificadas de interés público, la aprobación de cualquier programa municipal que sustituya o sea incompatible con el programa de «huertos ecológicos de ocio», o también la aprobación de cualquier Plan de desarrollo urbanístico o de infraestructura por parte del Ayuntamiento o cualesquiera otra Administración Pública, que conlleve la implantación de cualquier dotación pública sobre los terrenos destinados a huertos ecológicos de ocio. En estos casos, la

onarpenarekin batera gizarte interesekoa edo onura publikokoa delako aitorpena egingo da, jabari publikoko lursailak erabiltzeko gaitasun tituluen balioa indargabetzeko, eta emandako baimenaren zati bat edo osorik galtzea ekar lezakete, inolako kalte-ordainik jasotzeko eskubiderik izan gabe.

**8. Artikulua. Baratzeen programaren funtzionamendurako jarraibideak.**

Eskumena duen udal organoak jarraibideak eman ahal izango ditu aisialdirako baratze ekologikoen programaren jardueraren alderdi orokor zein zehatzei buruz, esate baterako, lan egiteko erak, ordutegiak, labore motak eta abar izaera orokor zein bereziaz zehazteko. Baratzeen erabiltzaileek derrigorrez bete beharko dituzte jarraibide horiek, eta bete behar izango dituzte halaber, Alkatetzak, Zinegotzi ordezkariak edo horren ardura duten Udaleko langileek gai horren beraren inguruan erabiltzaileei egiten dizkieten ahozko ohartarazpenak edo aginduak.

**II. TITULUA  
ESLEITZEKO PROZEDURA**

**9. Artikulua. Onuradun izateko baldintzak.**

Irungo Baratze Parkeko aisialdirako baratze publiko ekologikoko zerbitzuen erabiltzaile, eta horrenbestez, erabiltzeko baimenen onuradun izan daitezke Irungo udalerrian erroldatuta dauden pertsonak deialdia argitaratzen den urteko urtarrilak 1etik aurrera, baldin eta benetan herrian bizi badira, eta gainera, honako baldintza hauek betetzen badituzte:

aprobación del referido Plan conllevará la declaración de utilidad pública o interés social, a efectos de dejar sin vigencia los títulos habilitantes para el uso de los terrenos demaniales, y pueden dar lugar a la pérdida total o parcial de la autorización concedida sin derecho a indemnización alguna.

**Artículo 8. Instrucciones de funcionamiento del programa de huertos.**

El órgano municipal competente podrá dictar instrucciones sobre aspectos generales o concretos de la actividad del programa de huertos ecológicos de ocio a fin de disciplinar formas, horarios, tipos de cultivos, etc., con carácter general o especial, y que serán de obligado cumplimiento por las personas usuarias de los huertos, así como las órdenes o indicaciones que sobre el mismo asunto, la Alcaldía, el delegado o delegada, o el personal encargado del Ayuntamiento realice verbalmente a las personas usuarias, que serán asimismo de obligado cumplimiento.

**TÍTULO II  
PROCEDIMIENTO DE  
ADJUDICACIÓN**

**Artículo 9. Requisitos para ser persona beneficiaria.**

Podrán ser usuarias del servicio y, por tanto, beneficiarios y beneficiarias de las autorizaciones de ocupación de los huertos públicos ecológicos de Irungo Baratze Parkea, las personas empadronadas en el municipio de Irun a 1 de enero del año de publicación de la convocatoria y que efectivamente residan en la localidad, y que cumplan, además, con los siguientes requisitos:

- |  |   |
|--|---|
| <ol style="list-style-type: none"> <li>1. Administrazio Publikoekiko zerga betebeharrak eta gainerako ordainketa guztiak egunean edukitzea.</li> <li>2. Beste baratze ekologiko baten erabiltzailea den bizikidetzaren unitate bateko kidea ez izatea.</li> <li>3. Eskatzaileak edo bere bizikidetzaren unitateko beste kideren batek jabetzan ez edukitzea Irunen nekazaritza jarduerarako egokia den landa izateko lursailik.</li> <li>4. Zigorrik ez izatea lehenago aisialdirako beste baratze ekologiko baten jabe izan delako, Araudi honetan aurreikusitakoa ez betetzeagatik.</li> </ol> | <ol style="list-style-type: none"> <li>1. Estar al corriente en el pago de las obligaciones tributarias o de otra índole con las Administraciones Públicas.</li> <li>2. No ser miembro de la unidad convivencial de personas usuarias de otro huerto público.</li> <li>3. No disponer en propiedad ni quien lo solicita ni ninguna otra persona de la unidad convivencial, terrenos de naturaleza rústica, que sean aptos para actividades agrícolas, en el municipio de Irun.</li> <li>4. No haber sido sancionado o sancionada en razón a la posesión anterior de huertos públicos ecológicos de ocio por incumplimiento previsto en el presente Reglamento.</li> </ol> |
|--|---|

**10. Artikulua. Baimenak emateko prozedura.**

**Artículo 10. Procedimiento para el otorgamiento de las autorizaciones.**

- |   |  |
|---|--|
| <ol style="list-style-type: none"> <li>1. Aisialdirako baratze ekologikoak okupatzeko eta beroriek erabiltzeko eskubidea ematen duten baimenak banatzeko prozeduran aplikatuko den erregimena konkurrentziarena izango da, kontuan izanik lizentzia kopurua mugatua dela. Hala ere, arau hori ez zaie intereseko taldeei aplikatuko, haientzat udalak lursail batzuk gorde ahal izango baititu beren erabilera espezifikorako.</li> <li>2. Esleitzeko prozedura arrunt hori ofizioz abiaraziko du Udalak, eskumena duen tokiko organoak horretarako Ebazpena eman ondoren; ebazpen horretan jasoko da aisialdirako baratze ekologikoak erabiltzeko eta aprobetxatzeko baimenak emateko deialdia, dela baratze guztiei dagokiena, dela baratze horietako kopuru mugatu bati dagokiona. Deialdi hori Udalaren web orrian argitaratu beharko da (<a href="http://www.irun.org">www.irun.org</a>).</li> </ol> | <ol style="list-style-type: none"> <li>1. El procedimiento aplicable al otorgamiento de las autorizaciones que habiliten para la ocupación de los huertos públicos ecológicos de ocio y que faculden para su uso y disfrute, será en régimen de concurrencia, dado el número limitado de las mismas. No obstante dicha regla no será aplicable para los grupos de interés para los cuales el Ayuntamiento podrá reservar determinadas huertas de uso específico.</li> <li>2. Dicho procedimiento ordinario de adjudicación se iniciará de oficio por el Ayuntamiento, previa Resolución en tal sentido dictada por el organismo local competente, en la que se contendrá la convocatoria para el otorgamiento de autorizaciones de uso y aprovechamiento de huertos públicos ecológicos de ocio, bien referida a la totalidad de las huertas o a un número limitada de ellas. Dicha convocatoria será objeto de publicación en la página web del Ayuntamiento de Irun (<a href="http://www.irun.org">www.irun.org</a>).</li> </ol> |
|---|--|



3. Baratze publiko ekologikoen zerbitzuan sartzeko eta esleipenean parte hartzeko interesa duten pertsonak eskaera aurkeztu beharko dute Irungo udaletxean deialdian zehazten den epean.

3. La persona interesada en el acceso al servicio y adjudicación de los huertos públicos ecológicos deberá presentar la solicitud correspondiente ante el Ayuntamiento en el plazo que se establezca en la convocatoria.

Udalak ofizioz egiaztatuko du erroldan dagoela, arau-hauste bakar bat ere ez dagoela eta Udalarekiko zerga betebeharreran edo beste era bateko betebeharrak guztietan egunean dagoela.

El Ayuntamiento comprobará de oficio el empadronamiento, la ausencia de infracciones cometidas y el cumplimiento de estar al corriente de las obligaciones tributarias o de otra índole para con este Ayuntamiento y otras administraciones públicas.

### **11. Artikulua. Eskumenak eta prozedura.**

### **Artículo 11. Competencias y procedimiento.**

Alkatetzak erabakiko du erabilerarako eta aprobetxamendurako baimena emateko prozedura.

El procedimiento de autorización de uso y aprovechamiento se resolverá por la Alcaldía.

Gutxienez hamar eguneko epea emango da eskariak aurkezteko. Ondoren, onartuen eta baztertuen behin-behineko zerrenda onartuko da eta udalaren web orriko Irargarki taulan argitaratuko da. Nahi dutenek erreklamazioak aurkeztu ahal izango dituzte deialdi bakoitzean zehaztutako epean, baina gutxienez hamar eguneko izango da epe hori. Epe hori bukatu ondoren, eta jasotako erreklamazioak ebatzita, onartuen eta baztertuen behin betiko zerrenda jasoko duen ebazpena emango da. Esleitu beharreko baratzeak baino onartutako eskaera gehiago balego, zozketa publikoa egingo da. Zozketaren data behar bezala iragarriko da eta baratze zehatza esleituko da hartan.

Se establecerá un plazo de, al menos, diez días naturales para presentar instancias. A continuación, se aprobará la lista provisional de personas admitidas y excluidas y se publicará en el Tablón de anuncios de la página web municipal. Las personas interesadas podrán presentar reclamaciones en el plazo establecido en cada convocatoria siendo dicho plazo como mínimo de diez días. Finalizado dicho plazo, y resueltas las reclamaciones recibidas, se dictará resolución que contenga la lista definitiva de personas admitidas y excluidas. Si hubiese más solicitudes admitidas que huertas a adjudicar se efectuará un sorteo público cuya fecha se anunciará oportunamente, en el que se adjudicará la huerta concreta.

Behin betiko zerrenda eta, hala behar badu, zozketa egin ondoren, esleipendunen zerrenda eta behin betiko itxaron-zerrenda argitaratuko dira, udalaren web orrian argitaratuta.

Efectuada la lista definitiva y el sorteo, en su caso, se publicará la lista de personas adjudicatarias y la lista de espera definitiva, publicándose en la página web municipal.

Lizitazio bakoitzerako deialdian zehaztuko dira zozketarako irizpideak.

Los criterios de sorteo se especificarán en la convocatoria para la licitación correspondiente.

**12. Artikulua. Baimenen esleipena eta itxaron-zerrenda.**

Esleipendun bakoitzari ematen zaion lizentziak argi azaldu beharko du, gutxienez, zein diren baratzearen xedea, definizioa eta kokalekua, erabiltzailearen eskubideak eta betebeharrak eta lizentziaren indarraldia.

Zozketan baratze baten esleipendun suertatu ez diren pertsonak itxaron-zerrenda batera pasako dira. Zerrenda hori bajak betetzeko erabiliko da, eta horretarako, hurrengo hautagaiari dei egingo zaio, aipatutako zerrenda horretan duen ordenaren arabera, baimena indarrean dagoen epearen barruan.

Baratzearen erabilera onartzen duen baimena esleitu ondoren, esleipendunak eskatzen den fidantza jarri beharko du eta onartutako kuotaren zenbatekoa autoliquidatu beharko du, esleitutako baimena jasoko badu. Esleipenerako epea igaro ondoren itzuliko da fidantza, baldin eta esleitu zitzean unean zegoen egoera berdinean itzultzen badu baratzea.

**III. TITULUA  
BAIMENAK**

**13. Artikulua. Baimenen behin-behinekotasuna.**

1. Aisialdirako baratze ekologikoak dauden eremu publikoaren erabilera eta gozamenerako eskubidea ematen duten baimenek urte bateko iraupena izango dute, eta urtez urte luzatu ahal izango dira, beste hiru urtez gehienez, titularrak hurrengo deialdietan parte hartu ahal izango duelarik.

**Artículo 12. Adjudicación de autorizaciones y lista de espera.**

La autorización que se conceda a cada una de las personas adjudicatarias, deberá especificar, al menos, la finalidad, la definición y emplazamiento del huerto, los derechos y obligaciones de la persona usuaria y la vigencia de la autorización.

Aquellas personas que en el sorteo no hubiesen resultado adjudicatarias de una huerta, pasarán a integrar una lista de espera. Esta lista será utilizada para cubrir bajas, realizándose un llamamiento a la siguiente persona candidata según el orden que ocupara en la lista referida, dentro del periodo de vigencia de la autorización.

Una vez adjudicada la autorización que autoriza el uso del huerto, la persona adjudicataria deberá depositar la fianza al efecto establecida y deberá autoliquidar el importe de la tasa aprobada a fin de recibir la correspondiente autorización. La fianza se devolverá una vez transcurrido el plazo de adjudicación, siempre que se devuelva la huerta en el mismo estado que en el momento de la adjudicación.

**TÍTULO III  
DE LAS AUTORIZACIONES**

**Artículo 13. Temporalidad de las autorizaciones.**

1. Las autorizaciones que habiliten para el uso y disfrute del dominio público sobre el que se asienten los huertos ecológicos de ocio, tendrán la duración un año, prorrogable anualmente hasta un máximo de otros tres años más, pudiendo la persona titular optar a ulteriores convocatorias.

- |   |  |
|---|--|
| <p>2. Urteko luzapenak automatikoki egingo dira aldeetako bakar batek ere ez badu aurkakorik esaten epea bukatu baino hilabete bat lehenago.</p> <p>3. Kasu bakoitzean eskumena duen udal organoak aipatutako baimen horiek baliogabetu eta indarrrik gabe utzi ahal izango ditu, baldin eta esleitzeko baldintzak edo emakida arrazoitu zuten baldintzak, edo esleipendunei dagozkien betebeharrak betetzen ez badira, Araudi honetan adierazten direnak, hain zuzen ere, eta zehaztutako prozeduraren arabera betiere.</p> <p>4. Baimenaren indarraldia amaitzean, eta indarreko epearen azken hilabetearen barruan, hartu zituzten unean zeuzkatenen antzeko baldintzetan itzuliko dira baratzeak.</p> | <p>2. Las prórrogas anuales se realizarán automáticamente si ninguna de las partes manifiesta lo contrario con un mes de antelación a la finalización.</p> <p>3. El órgano municipal que resulte competente en cada caso, podrá revocar y dejar sin vigencia las citadas autorizaciones, si se incumplieran de manera sobrevenida los requisitos para la adjudicación o las condiciones que motivaron su concesión, o las obligaciones que recaigan sobre las personas adjudicatarias, relacionadas en este Reglamento y de acuerdo con el procedimiento establecido.</p> <p>4. Al finalizar la vigencia de la autorización y dentro del mes final de plazo de vigencia, las huertas serán devueltas en condiciones análogas a las que tenían cuando fueron cedidas.</p> |
|---|--|

**14. Artikulua. Baimenen eskualdaezintasuna, iraungitzea eta baliogabetzea.**

**Artículo 14. Intransmisibilidad, extinción y revocación de las autorizaciones.**

- |   |  |
|---|--|
| <p>1. Irungo Baratze Parkeko baratzeak erabiltzeko eskubidea ematen duten baimenak ezin izango zaizkie hirugarren pertsonari eskualdatu.</p> <p>2. Honako arrazoi hauengatik iraungi ahal izango dira baimenak:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>a) Epea betetzeagatik.</li> <li>b) Elkarren arteko akordioz.</li> <li>c) Ebazpen judizialaren bidez.</li> <li>d) Titularrak uko egiteagatik.</li> <li>e) Heriotzagatik edo gaixotasunagatik erabiltzaileak ezin baditu baratze lanak egin. Kasu horietan baratzean leudekeen nekazaritzako produktuak bildu ahal izango dituzte oinordekoek edo familiakoek.</li> <li>f) Araudi honetan aurreikusitako arrazoiren batzuetan babestutako baliogabetzeagatik.</li> </ul> | <p>1. Las autorizaciones que concedan al uso de los huertos de Irungo Baratze Parkea, no serán transmisibles a terceras personas.</p> <p>2. Las autorizaciones se extinguirán por las siguientes causas:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>a) Por vencimiento del plazo.</li> <li>b) Por mutuo acuerdo.</li> <li>c) Por resolución judicial.</li> <li>d) Por renuncia de la persona titular.</li> <li>e) Por defunción o enfermedad que incapacite a la persona usuaria desarrollar las labores propias de la huerta. En estos casos las personas herederas o familiares podrán recoger los productos agrícolas que hubiesen en la huerta.</li> <li>f) Por revocación amparada en algunas de las causas previstas en el presente Reglamento.</li> </ul> |
|---|--|

3. Honako arrazoi hauengatik kendu ahal izango dira baimenak:

- a) Errolda galtzeagatik, edo egiaz udalerrri honetako etxebizitza batean ez bizitzeagatik baimena indarrean dagoen bitartean.
- b) Araudi honetan jasotako beste edozein baldintzatik etorritako ez betetzeagatik.
- c) 7. artikulua aipagai duen interes publikoaren arrazoi justifikatua izateagatik.
- d) Baimenaren kentzeak berekin daraman arau-hauste larria edo oso larria egin izateagatik.
- e) Beharreko kuota ez ordaintzeagatik.

Baimena kentzean automatikoki galduko da erabiltzaile izaera.

4. Behar bezala arazoitutako Ebazpenaren bidez hasiko da baimena kentzeko prozedura, eta ebazpen horretan azalduko dira gertatutakoak eta zuzenbideko oinarriak. Ebazpenaren berri emango zaio erabiltzaileari, eta hamabost laneguneko epea izango du alegazioak aurkezteko. Ondoren, behin betiko erabakiko da espedientea.

Baimena kentzeak eta haren ondorioz zerbitzuaren erabiltzaile izaera galtzeak ez du, inolaz ere, inolako kalte-ordainik sortuko erabiltzailearen alde, ez eta ordaindutako kuota itzultzeko inolako eskubiderik ere. Gainera, galera horrek fidantza konfiskatzea ekarriko du eta, hala badagokio, erabiltzaileari dagokion kalte-ordaina eskatuko zaio Udalari eragindako kalteengatik.

3. Son causas de revocación de la autorización las siguientes:

- a) La pérdida del empadronamiento, o la no residencia efectiva en una vivienda de este municipio durante el periodo de vigencia de la autorización.
- b) El incumplimiento sobrevenido de cualquier otro requisito establecido en este Reglamento.
- c) La concurrencia de causa justificada de interés público a que se refiere el artículo 7.
- d) La comisión de infracción grave o muy grave que conlleven aparejada la revocación de la autorización.
- e) El impago de la tasa.

La revocación de la autorización determinará la pérdida automática de la condición de persona usuaria.

4. El procedimiento de revocación de la autorización se iniciará mediante Resolución motivada en la que se expondrán los hechos y fundamentos de derecho, la cual será notificada a la persona usuaria, concediéndole un plazo de quince días hábiles para presentar alegaciones, resolviéndose, a continuación, definitivamente el expediente.

La revocación de la autorización y la consiguiente pérdida de la condición de persona usuaria del servicio no dará lugar, en ningún caso, al reconocimiento de indemnización alguna a favor de aquella persona, ni derecho alguno a la devolución de la tasa abonada. Además esa pérdida supone la incautación de la fianza y la exigencia, en su caso, de la correspondiente indemnización de los perjuicios irrogados al Ayuntamiento.

#### **IV. TITULUA BARATZEAK ERABILTZEKO ETA APROBETXATZEKO BALDINTZA OROKORRAK**

##### ***15. Artikulua. Elkartearen eraketa.***

Behin betikoz esleipendun diren pertsonak, alde batetik, baratzeen erabiltzaileen elkarte bat eratu beharko dute baratzeak kudeatzeko, eta bestetik, pertsona bat izendatu behar dute Udaleko kudeaketa arduradunarekin harreman zuzena izateko. Bozeramaile horrek jasoko ditu erabiltzaileen zalantzak, arazoak eta abar.

Horrez gain, elkartearen xede izango dira Irungo Baratze Parkearen erabilera zuzena ziurtatzea eta gutxieneko mantentze lanak egitea.

Elkartea ez bada eratzen eta hartako kide izateari uko egiten bazaio, galdu egingo da lursaila erabiltzeko eskubidea.

##### ***16. Artikulua. Erabilerarako baldintza orokorrak.***

1. Zerbitzuaren pertsona erabiltzaileek nahitaez berek erabili eta aprobetxatu behar dute esleitutako baratze publikoa, eta haren ohiko erabilera ezin dute hirugarren pertsonen esku utzi.
2. Gainera, honako baldintza hauek bete beharko dituzte:
  - a) Arau orokor gisa, esleipendunek errespetatu egin beharko dituzte baratzetan egiten den erabilerari buruz Araudi honetan jasotako alderdi guztiak.
  - b) Baratzeak inguruan ohikoak edo berezkoak diren barazki ez

#### **TÍTULO IV CONDICIONES GENERALES DE USO Y APROVECHAMIENTO DE LOS HUERTOS**

##### ***Artículo 15. Creación de la asociación.***

Las personas adjudicatarias con carácter definitivo estarán obligadas a constituir una asociación de personas usuarias de las huertas para la gestión de las mismas, y a designar una persona para el contacto directo con el responsable de gestión del Ayuntamiento. Este portavoz se encargará de recoger las dudas, problemas, etc. de las personas usuarias.

Además, serán objetivos de la asociación salvaguardar el funcionamiento correcto de Irungo Baratze Parkea y realizar un mínimo de mantenimiento.

La no constitución de la asociación o la negativa a formar parte de la misma dará lugar a la pérdida del derecho de uso de la parcela.

##### ***Artículo 16. Condiciones generales de uso.***

1. Las personas usuarias del servicio están obligadas a usar y aprovechar la huerta pública adjudicada por sí mismas y a no ceder su uso habitual a terceras personas.
2. Además deberán cumplir las siguientes condiciones:
  - a) Como regla general, deberán respetar todos los aspectos recogidos en la presente Reglamento que atañen al uso que se desarrolle en los huertos.
  - b) Destinar los huertos exclusivamente al cultivo y plantación de aquellas

egurkaren espezieak landu eta landatzeko erabiliko dira, hau da, letxugak, tomateak, tipulak, porruak, kuiatxoak, babak eta abar, eta osagarri gisa baita loreak eta usain belarrak ere. Baztertu egingo dira zainketa berezia behar duten beste era bateko landaketa guztiak.

- c) Erabiltzeko uzten diren instalazioei, ematen direnean zituzten baldintza berdinetan eutsiko zaie, behar bezalako arduraz zainduta. Lursaila garbi eduki beharko da beti, bertan dauden landaketei, halakorik badago, kalterik egin gabe.
- d) Erabilera kontzeptuan jasotzen diren ondasunak ezin hobeto gorde eta zaindu behar dira. Udalari jakinarazi beharko diote, Elkartearen bidez, baratzeei edo instalazioei erasaten dien edozein gorabehera gertatzen bada, gainerako erabiltzaileek zein baratzeen erabilerarekin zerikusirik ez duten hirugarrenen eraginak badira.
- e) Baimenaren epea amaitzen denean, baratzearen jabetza udalari itzuliko diote pertsona esleipendun berriek erabiltzeko moduko baldintzetan, edo bestela, baimenari uko egiten bazaio edo baliogabetzen bada, halakorik gertatzen den une berean.
- f) Hasieran utzi diren bezala mantenduko dira lursailaren egitura eta azalera, eta ezin izango dira Udalak ezarritako mugak aldatu, ez eta inolako obrarik edo itxiturarik egin ere, Udalean eskumena duen organoak aldeztu aurretik baimentzen ez badu. Era berean, instalazioaren titularrak ezin

especies y variedades vegetales no leñosas propiamente hortícolas de la zona, esto es, lechugas, tomates, cebollas, puerros, calabacines, habas, etc. así como flores y plantas aromáticas de forma complementaria, debiendo descartarse otro tipo de plantación que requiera de un cuidado especial.

- c) Mantener las instalaciones que se ceden para el uso, en las mismas condiciones que se entreguen, aplicando la debida diligencia. La parcela deberá estar limpia en todo momento, sin perjuicio, en su caso, de las plantaciones que en la misma existan.
- d) Custodia y cuidado exquisito de los bienes que se entregan en concepto de uso. Deberán poner en conocimiento del Ayuntamiento, a través de la Asociación, cualquier incidencia que afecte a los huertos o instalaciones, ya provengan de las demás personas usuarias, ya de personas terceras, ajenas al uso de aquéllos.
- e) Devolver la posesión del huerto al Ayuntamiento, una vez finalice el plazo de la autorización en condiciones aptas para el disfrute de nuevas personas adjudicatarias; o en caso de renuncia o revocación de la licencia en el mismo momento en que se haga efectiva la misma.
- f) Mantener la misma estructura y superficie de la parcela que se cede en origen, no pudiéndose variar el deslinde efectuado por el Ayuntamiento, ni realizar ningún tipo de obra o cerramiento que no fuera previamente autorizado por el órgano competente del Ayuntamiento. Asimismo, deberá abstenerse la persona titular de la instalación de

- izango du berariaz lurraren laborantzarako ez den bestelako elementurik jarri, esate baterako, barbakoak, estalpeak, txabolak eta abar, ez lurraren azaleraren gainean, ez lurpean.
- g) Eragozpenik ez zaie sortu behar gainerako baratzeeen erabiltzaileei, eta ez da pertsona horiei kaltea edo mina eman liezaiekeen tramankulu, mekanismo edo sistemarik erabiliko.
- h) Laborantzan, garbiketan edo baratzeko gainerako zereginetan ez da lurra larriki kutsa dezakeen produkturik erabiliko.
- i) Baratzeeen erabilera edo laborantza ez da bertan behera utziko, eta bereziki fruituak bildu egin beharko dira, baldin eta bertan utzita, dela landarean bertan dela lurrean, kiratsa botatzen, lursaila zikintzen edo paisaiari eta inguruari kaltea egiten badiete.
- j) Baratzeetan ez dira materialak edo tresnak bildu edo metatu behar, non eta lurraren laborantzarako ezinbestekoak ez badira.
- k) Baratzeetan ez zaie etxe abereei sartzen utzi behar.
- l) Baratzeeen barruan ez da trakzio mekanikoko ibilgailurik erabiliko, ezohiko kasuetarako baimendutakoak salbu.
- m) Baratzeetan ez da beste pertsonak gogaitu ditzakeen musika ekiporik erabiliko.
- n) Debe katuta dago baratzeetako landare hondakinak erretzea, eta baratze publikoen esparruaren barnean mota guztietako suak piztea.
- o) Debe katuta dago gainerako
- colocar cualquier tipo de elementos que no se destinen específicamente al cultivo de la tierra, tales como barbacoas, cobertizos, casetas, etc., tanto por encima de la superficie del suelo, como soterrado.
- g) No causar molestias a las demás personas usuarias de los huertos, absteniéndose de la utilización de artilugios, mecanismos o sistemas que pudieran provocar daños o lesiones.
- h) Se prohíbe el uso de sustancias destinadas al cultivo, a la limpieza o a cualquier utilización en el huerto que puedan provocar grave contaminación del suelo.
- i) No abandonar el cultivo o uso de los huertos, en especial no podrá dejar de recolectar los frutos si los mismos producen hedor, ensucian el terreno, o perjudican el entorno y la calidad del paisaje, se encuentren o no en la planta o en el suelo.
- j) Se prohíbe el depósito o acumulación de materiales o herramientas sobre los huertos, que no fueran los estrictamente necesarios para el cultivo de la tierra.
- k) Impedir la presencia de animales domésticos en los huertos.
- l) Se prohíbe el uso de vehículos de tracción mecánica en el interior de los huertos, salvo casos excepcionales debidamente autorizados.
- m) No se podrán utilizar equipos musicales que puedan molestar a otras personas.
- n) Se prohíbe la quema de restos vegetales de huertas, así como la generación de cualquier tipo de fuego dentro del recinto de las huertas públicas.
- o) Se prohíbe realizar vertidos sobre las

baratzeetan edozein isurketa egitea edo baratze horietan nahiz norberarenean sastraka kendu edo garbitu ondoko hondakinak pilatzea.

- p) Ezin izango da zeporik, tranparik, lakiorik edo perdigoizko zein balinezko eskopetarik, gomazko jaurtigailurik edo bestelako tresnarik edo tramankulu mekaniko edo naturalik erabili edozein animalia, hegazti edo pertsonari sarbidea galarazteko, hegaztiei sarbidea eragozten dieten babes sareak salbu.

demás huertas o depositar restos de desbroce o limpieza sobre las mismas o sobre la propia huerta.

- p) No se podrán utilizar cepos, trampas, lazos o escopetas de perdigones o balines, tiradores de goma u otros utensilios o instrumentos mecánicos o naturales para evitar el acceso por tierra de cualquier animal, ave, o persona, salvo las redes protectoras que impidan el acceso de aves.

3. Elementu komunak, bai azpiegiturak, bai lanabesak, errespetatu eta erabilera eta garbitasun baldintza egokietan mantendu beharko dira. Elementu komunak mantentzeko erabiltzaileen elkarteak hartutako erabakiak bete beharko ditu erabiltzaileak. Era berean, elkarteak ordezkari bat edo batzuk izendatu beharko ditu elementu komunen gaineko erabaki lotesleak hartzeko eta, orobat, Udalarekiko harremanetan bozeramaileak izateko.

4. Baimenaren titularrak ez badu azaldutako baldintza horietako edozein betetzen, Udalak baliogabetu egingo du baimen hori.

5. Era berean, egunerokoan erabiltzaileek berek miatuko dute baratzea egoki erabiltzen ari dela eta instalazioen kontserbazioa, konponketa eta mantenua ere egokiak direla, eta haien erantzukizuna izango da instalazioak behar bezala erabiltzea eta baratzeak nahiz haiekin loturiko azpiegiturak kontserbatzea, konpontzea eta mantentzea ez badira ondo erabiltzen.

3. Deberán respetarse y mantener en las debidas condiciones de uso y limpieza los elementos comunes, tanto las infraestructuras como los aperos. La persona usuaria estará obligada a someterse a las decisiones que para el mantenimiento de los elementos comunes establezca la asociación de personas usuarias. Igualmente la asociación deberá designar a uno, una o varias personas representantes para la toma de decisiones vinculantes para las personas usuarias que afecten a dichos elementos comunes así como para interlocución con el Ayuntamiento.

4. El incumplimiento de cualquiera de las anteriores condiciones por parte de la persona titular de la autorización, dará lugar a la revocación de la misma, por el Ayuntamiento.

5. Asimismo la conservación, reparación y mantenimiento de las instalaciones y del correcto uso de la misma será vigilada en el día a día por los propios usuarios y usuarias, siendo responsabilidad suya el correcto uso de las instalaciones y la conservación, reparación y mantenimiento de los huertos y las infraestructuras ligadas a las mismas en caso de un uso no adecuado de las mismas.



- |  |   |
|--|---|
| <p>6. Esleipendunek derrigorrez parte hartu beharko dute Ekoguneak antolatzen duen nekazaritza eta baratzezaintza ekologikoko jardunbide egokien lehen ikastaroan.</p> <p>7. Erabiltzaileen elkarteak egutegi bat ezarri beharko du beharrezkoak diren mantenu lanetan laguntzeko (lursailen mugak, urasken garbiketa eta abar). Ekoguneako koordinatzailearekin eta Udaleko zerbitzu teknikoekin adostu beharko da egutegi hori.</p> <p>8. Erabiltzaileen elkarteak udal zerbitzu teknikoekin koordinaturik finkaturiko instalazioen erabilera ordutegiak bete beharko dituzte esleipendunek.</p> | <p>6. Las personas adjudicatarias estarán igualmente obligadas a asistir al primer curso de buenas prácticas agrícolas y horticultura ecológica organizado por Ekogunea.</p> <p>7. La asociación de personas usuarias deberá fijar un calendario, con el fin de colaborar en las labores de mantenimiento que se necesiten (límites de parcelas, limpieza de albercas, etc.). Este calendario deberá ser consensuado con los servicios técnicos del Ayuntamiento y el coordinador de Ekogunea.</p> <p>8. Las personas adjudicatarias se atenderán a los horarios de uso de las instalaciones fijados por la asociación de personas usuarias en coordinación con los servicios técnicos municipales.</p> |
|--|---|

**17. Artikulua. Lurraren aprobetxamendua.**

Baimenaren titularra behartuta dago utzitako baratzea behar bezala lantzeraz eta lanabes egokiak erabiltzeraz, eta aurreko Artikuluan adierazitakoari kalterik eragin gabe, baratzeen aprobetxamenduak honako arau hauek bete beharko ditu:

- a) Ez da onartuko lurra, zorua edo azpiko lurra hondatzeko arriskua duten landareak edo barazkiak landatzea.
- b) Era berean, erabiltzaileak ezin izango du espezie exotiko edo inbaditzaileak landatu, ez eta legez onartuta ez dagoen bestelako landararik ere.
- c) Bestalde, ezin izango dira sasoikoak ez diren espezieak landatu; gehienez zortzi hilabeteko epean uzta jasotzeko landareak izan beharko dute, eta ezin izango dira zuhaitz espezieak aldatu, ezta fruta arbolak badira ere.

**Artículo 17. Aprovechamiento de la tierra.**

La persona titular de la autorización se obliga a cultivar adecuadamente el terreno cedido para el huerto y a utilizar los aperos adecuados, sin perjuicio de lo establecido en el Artículo anterior, el aprovechamiento de los huertos se deberá sujetar a las siguientes normas:

- a) No se permitirá el cultivo de especies vegetales o plantas que provoquen un deterioro de la tierra, del suelo o del subsuelo.
- b) Asimismo, la persona usuaria no podrá plantar especies exóticas, invasoras o aquellas otras cuyo cultivo o siembra no estuviera permitido por ley.
- c) Igualmente, no está permitida la plantación de especies que no sean de temporada, cuya recolección no pueda efectuarse antes de ocho meses desde la siembra, ni tampoco cultivar todo tipo de especies arbóreas, incluidas las especies frutales.

- |   |  |
|---|--|
